



Foralena

bulegoak

Aldaerak:
Ahozkoa: Foralena

“... una heredad situada en la anteiglesia de Bériz, Cofradía de San Lorenzo, que mide setecientos cincuenta metros cuadrados... una casa destinada a Sucursal de la Institución [Caja de Ahorros Vizcaína]... que consta de sótano, planta baja, piso alto y desván...”
BUA / Jabego Eskriturak, 1976



43°10'32"

2°34'36"

Bériz Iruditan / J.A. Ramos

XX. mende hasieran altxatutako eraikina dugu honako hau, Bizkaiko Foralen kokalekua izateko. Urtetan Bizkaiko zaindarien Berrizko egoitza izateaz gain, *Caja de Ahorros Vizcaínaren* bulegoak hartu zituen. Gerora, XX. mendeko azken urteak Udaletxe zereginak izan zituen, egun duen erabilera izan baino lehen. Orain *Urkiola Landa Garapen* elkarteak bertan du bere egoitza. Dena den, erabilpen desberdinak izan arren, berriztarren artean *Foralena* da ahozko forma erabiliena.

Eraikin bitxia. Izan ere, sasoi bateko estilo artistikoak berreskuratzeko asmoa bistan da bertan eta. Bolumen desberdinak dituen arren, aurre-

ratuta dagoena da etxearen tankera definitzen duena, bere hastial eta guzti. Pisu biz osatuta dago, eta behekoan hiru sarrerako arkuek dute indarra, baita tarteko plakek ere, segurutik bertan zerbait lantzeko prestatuak. Goikoa, oster, leiho termal batek finkatzen du, baina aurrean egin dioten gorputz molduratu eta pinakuluek erdi ezkutatuan uzten dute. Harria erabili zuten eraikina egiteko, baita sarrerako eskailerak egiteko ere. Hauetan ere bistakoa da estilo historizistaren presentzia, erremateko boleak adierazten duen lez.

toponimia

Gerra Zibilaren ondorioz foruak galdu genituen arte Bizkaiak berezko polizia zuen, Foralak deiturikoak. Foralak 1784an sortu zituen BFAk udaletako polizia laguntzeko eta azkenean 1937an desagertu ziren.